



Udaletxe eta parke berriko lanak direla eta, ibai ondoko pasealekuko eremu bat hesiz itxi dute. Bertan jartzen diren postuak lekualdatu behar izan dituzte.

Merkatua lekuz aldatu da

Ibai ondoan jarri ohi diren postuak, Brigitarren plaza eta Elizatze plazara lekualdatu dituzte

Asteazkenean, merkatura hurbildu ziren herritarrek harrituak geratu ziren. Ibai ondoko postuak ez zeuden. Udaletxe eta parke berriko lanak direla eta, merkaturako hainbat postu lekuz aldatu behar izan dituzte. Aukeraturako lekua, Brigitarren plaza eta Elizatze plaza. Udalak jakin arazi digunez, Elizatze plazako kokalekua behin behinekoa da lanak bukatu artean; ez ordea, Brigitarren plazakoa. •



Elizatze plazako kokalekua behin behinekoa dela azaldu digu Udalak, lanak bukatu arte; Brigitarren plazako postuak ordea, hor izango dute behin betiko lekua.

Santa Ana eguneko ospakizunak prest

Astelehenean, uztailak 26, Santa Ana eguna ospatuko da gure herrian. Ttakun kultur elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu egun hori ospatzeko. Goizean, meza, lancha eta Karkaban ikurrina jartzea. Gauean, berriz, urteko gai garrantzitsuenak umorez errepasatzeko Parodia antolatudu. Aurten gainera, musikala izango da. /4



ELKARRIZKETA /5

Heldu zerbitzuak ateak itxi ditu eta Mikel Mazkarian langile ohiarekin bildu gara

KIROLA /6

Maialen Chourrautek Espainiako titulua eskuratu du berriro ere

Hurrengo Txintxarri uztaillaren 28an izango da. Zenbaki hau izango da azkena iraila arte.

ERREKATXO JATETXEA

KARTA EGUNEKO MENUA

Oria Etorbidea
Ibaiondo Poligonoa 4
Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

WIFI GUNEA



NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria

**Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak**

...

Zorion-agurrak



Oihane

Zorionak maitia zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat guztion partetik.



Larraitx

Zorionak Winnie! Ospatzerakoan txinolarekin kontuz ibili! 25ak ez dira txantxetarako!



Aitana

Zorionak poxpolin! Txokolatezko muxu eta tartakin ospatuko dugu zure eguna, marisorgin!



Ambar

Ettxeko printsesari bere seigarren urtebetetzean, zorionak!!




Bakartxo

Zorionak izeba. Maite zaitugu, guztion partetik.



Julen

Zorionak eta muxu handia aitona-amona eta izeba-osabaren partetik.



Maddi eta Unax

Zorionak bikote eta ondo pasa zuen urtebetetze egunetan. Zortzi eta bost muxu handi familiaren partetik.



Nora

Zorionak bihurri! 9 muxu handi Ane eta familiaren partetik.



Enara

Zorionak Marisorgin! 5 txokomarrubizko muxu zuretzat. Liberen eta gurasoen partetik.



Jon

Zorionak Jon zure 3. urtebetetzean! Muxu handi-handi bat zure familiaren partetik



Ximon

Zorionak gargame! Ettxekoen partetik hartu zazu bostekoa. Ama, aita eta Inge.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 23

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 24

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 25

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 26

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 28

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 29

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Uztaila eta abuztuan, Landetako Vieux Boucau herrian dagoen "Le Boucanier" urbanizazioan estudioa alokatzen dugu asteka. 700 euro asteka. Informazio gehiago 626 614 111 telefonora deituz emango dizuegu.

• Lasarten etxebizitza alokatzen da. Prezioa 850 euro. Harremanetarako zenbakia, 662 332 848.

• Apartamentua alokatzen dut Jakan uda osoan. Bi logela, igierlekua eta garajea. Harremanetarako telefono zenbakia, 639 659 583.

Salerosketak

• Garage bat alokatzen da Libertoko eraikinean, interesatutak deitu 667 812 940 telefonora.

• Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen, jubilazioagatik. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskuratu dezakete informazio gehiago eta egin beharrekoak. Harremanetarako telefonoa, 943 465 498.

Lan-eskariak

• Umeak zaintzen ditut nere etxean, Lasarte-Orian. Uztaila eta abuztuko hilabetetan astelehentik igandera eta honako ordutegian, 10:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 22:00etara. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

• Pertsona arduratsuak pertsona adinduak eta gaixoak zaindu, atezain lanak edo bestelako lanak egingo lituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527, Carlos.

• Neska bat eskaintzen da pertsona helduak zein haurrak zaintzeko eta garbiketarako. Informaio ere baditu. Harremanetarako telefono zenbakia, 647 614 537.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Jaiotzak



Luken Agape Fernández,
uztailaren 15ean
Enara Regalado García,
uztailaren 15ean
Diego Alonso Eleno,
uztailaren 13an
Paula Alonso Eleno,
uztailaren 13an

Jonathan Sánchez Rusu,
uztailaren 12an
Adrian Lozano Truyo,
uztailaren 12an

Heriotzak

Julia Aguinaga Echeverria,
uztailaren 16ean 96 urte zituela

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal eskualtegia ... 943361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Santa Brigitaren heriotza ospatuko dute gaur 11:00etan Brigitarren komentuko kaperan egingo den mezan.

Santa Brigitaren omenezko meza gaur komentuan

Jose Ignazio Munilla gotzainak ospatuko du meza

Gaur 11:00etan, Brigitaren komentuko kaperan egingo den meza berezia izango da, Santa Brigitaren omenezkoa.

Gaur, uztailak 23, Santa Brigitaren heriotzaren urteu-

rrena da. Horregatik, urtero legez, herriko komentuko mojek ordenaren fundatzailearen ohorezko meza ospatuko dute.

Honetaz gain, meza berezia izango da gotzain berriak,

Jose Ignazio Munillak Lasarte-Orian zuzenduko duen lehenengo meza delako.

Beraz, herriko fededunek Santa Brigitaren heriotza ospatzeaz gain, gotzainaren hitzak entzuteko aukera dute gaur. •

APARKALEKUA

Loidi-Barreneko aparkalekuan txartelarekin ordaindu behar da

Lehenengo astelehenetik, Loidi-Barreneko, hau da, Osasun Zentro berriko txandakako aparkalekuko tarifak txartelarekin bakarrik ordaindu ahal dira, izan ere, makinak ez du txaponik hartzen. •



Osasun zentro azpiko aparkalekuan txartelaz bakarrik ordaindu ahalgo da.

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogora arazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, hariak eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

Udalari iradokizunak egin

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten da. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere. Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea. •



Break-dance, capoeira eta batukadan trebeak direla erakutsi zuten txokoetako gaztetxoek.



Dantza eta erritmoa Udako Txokoetan

Astelehen goizean, Andatza plazako bizilagunek darrunba hotsa entzun eta bi haur talde eite arraroak egiten ikusi zituzten.

Udako Txokoetako gaztetxoak ziren horiek, LH3 eta LH6 bitarteko gaztetxoak, hain zuzen ere, eta egun horretako ekintza, *Dantza festa*, zen.

Hiru taldeetan banatuta, capoeira, break-dance eta batukada zer diren

ezagutu zuten. Capoeira eta break-dance-aren kasuan, pausu batzuk ikasi eta horiek probatu zituzten. Hankaz gora jarri zen gaztetxo bat baina gehiago break-dance egiten. Batukadan, berriz, instrumentu desberdinak ederki astindu zituzten irakasleek azalduko hainbat erritmo sortuaz.

Giro ederrean, dantza eta erritmoa izan ziren nagusi Andatza plazan. •



Musika eta umorea urteko gai garrantzitsuenak errepasatzeko

■ 60 urte betzen ditu ezagutzen dugun Parodiak ■ Exiquio Perez izango da omendua

Lasarte-Orian, urtean zehar gertatu diren gauzak modu umoretsuan errepasatzeko Santa Ana eguneko Parodia dugu. Astelehenean izango da hori, Santa Ana eguna, eta aurten berrikuntza handi batekin, musikala izango da.

TXINTXARRI

Iritsi da Santa Ana eguna. astelehenean ospatuko da eta urtero bezala, Ttakun Kultur Elkarteak egun horretarako ekintzak prestatu ditu.

Ohitura denez, Santa Ana eguneko ospakizunak, 11:00etan, Brigitarren Komentuan egiten den mezarekin hasiko dira.

Ondoren, mezetara joan direnek eta Brigitarren plazara hurbiltzen direnek Ttakunek antolatutako luntxa dastatu ahalko dute.

Eguerdian, berriz, ikurrina jarriko da Udaletxe ondoko Santa Ana Karkaban. Jarraian, agurra dantzatzeko dute Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak.

Parodia Isla plazan

Gau aldera arte itxaron beharko dute lasarteoriarrek egun honetako ekitaldi garrantzitsuenak ikusteko.

Aurten gainera, guk ezagutzen dugun Parodiaren 60. urteurrena ospatuko da, eta horregatik aldatetako bat izango du, musikala izango da.

Gaueko 22:30ean Isla plazan egingo den Parodiak musika izango du protagonista. Baina azken urtean herrian gertatutako kontu garrantzitsuenak ere errepasatuko ditu, hala nola, TDTa, Alkate aldateta, herriko jaiak... baina antolatzaileek ez

dituzte datu gehiegi zehaztu nahi, sorpresak ez zapuzteko.

Aurten gidoigintza lanetan Pablo Barrio, Idoia Garzes, Jokin Ayerregaray eta Martin Anso aritu dira.

Parodian parte hartuko duten guztiek (berrogei aktore inguru, dantzariak, musikak,...), laurogei lagun inguruk, afari ederraz gozatu dute Saustatxo elkarteak.

Bapo afaldu ondoren, 21:30ean Andatza plazatik irten eta, Parodia iragarri, desfilea egingo dute guztiek herriko erdiguneko kaleetan zehar Isla plazara, Okendon oraindik lanek jarraitzen baitute.

Omenaldia

Baina antzerkia egin baino lehen, omenaldia egiten da urtero. Aurten Exiquio Perez izango da omendua.

Exikiok hainbat eta hainbat urtean herrian antolatutako ekitaldi eta festak grabatzen jardun baita.

Omenaldiaren ostean, antzerkia eta musika izango dira nagusi Isla plazako ohol-tzan.

Hamaika pertsonaia ikusiko dituzte lasarteoriarrek ohol-tza gainean akusatuen aurkako edo aldeko iritzia ematen.

Santa Ana, San Joakin eta Basajaun ere bertan egingo dira guztia entzun eta epaia emateko. Ea akusatuak erre-tzen dituzten! •



Epaiketa berezi honetan, urtean zehar, herrian gertatutako guztia errua botako zaie akusatuei. Ea aske geratzen diren.



Hainbat testigantza eta pertsonaia xeblere ikusi ahalko dira Isla plazako ohol-tzan eta hori guztia, musikaz girotua.

M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Befiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Mikel Mazkarian / Heldu zerbitzuko langile ohia

“1.600 espediente kolokan gelditu dira”

Heldu zerbitzua 2002an sortu zen, Euskal Autonomi Erkidegoko atzeritar etorkinei arreta juridikoa eta soziala emateko helburuarekin. Zortzi urtez lanean egon eta gero, Eusko Jaurlaritzak ixtea erabaki du. Erabaki azkarra eta Gipuzkoan, gutxi gorabehera, 1.600 espediente kolokan utzi dituena. Hemendik aurrera, etorkinen arreta, informazio, aholkua eta laguntza, telefono zenbaki eta helbide elektronikoko baten bidez gauzatuko da.

TXINTXARRI

Mikel Mazkarian lasarteoriatarra Heldu zerbitzuko langile ohia dugu. 2004an hasi zen immigranteen aholkulari gisa proiektu honetan lanean. Inolako abisurik gabe, egunkaritan irakurriaz, Eusko Jaurlaritzak azken 7 urteetan bere lantokia izandakoa itxeko erabakia hartua zuela jakin zuen. Zerbitzu hau itxeko erabili dituzten moduak direla eta, haserre aurkitu dugu.

Noiz eta zergatik eratu zen Heldu?

Heldu zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren lehenengo immigrazio planarekin sortu zen 2002an, Biltzen eta Ikuspegiarekin batera. Testuinguru horretan, Heldu etorkinei aholkularitza zerbitzua eskaintzeko helburuarekin sortu zen. Adibidez, paperak lortzeko egin beharrekoak bideratzen laguntzeko.

Gizarte zerbitzuetik bideratzen zituzten etorkinak Heldura. Eta guk orduan espediente ireki eta egoeraren jarraipen bat egiten genuen. Etorkinei jarraitu beharreko pausuak azaltzen genizkien.

Hasieratik zaude Heldun?

2002an Heldu programa Bizkaian hasi eta 2003an, Gipuzkoara eta Arabara zabaldu zen. Ni 2004an sartu nintzen.

Bizirik iraun duen 8 urte hauetan, gizarte zerbitzuetatik egin dituzten balorapenetan funtsezkoa eta beharrezko zerbitzua zela ondorioztatzen zen. Etorkinei laguntza eta aholkularitza-lana emateaz gain, gizarte zerbitzuetan lan egiten duten langileentzako ere onuragarria zela aipatzen zen. Atzerrietasun legei buruzko argibideei buruz gizarte zerbitzuetako langileek ez baitzekiten ezer ere.

Zenbat espediente erregulatuta dira?

Helduren bizitzan, Euskal

Autonomia Erkidegoan, gutxi gorabehera, 33.000 espediente izan dira indarrean. Gipuzkoan konkretuki, 8.000 espediente ireki dira.

Eta hauetatik zenbaterik lortu dituzte paperak?

Urtero egiten ziren memoriak, baina nik konkretuki ez dakit. Estatistikak egitea zaila zen.

Kontuan hartu behar da etorkin batek paperak lortu ditzakeela, baina berritzailearen galdu. Eta hori askotan gertatzen da, beraz, gure zerbitzuak bizirik iraun duen denboran zenbat espediente erregulatuta diren zehazki esatea, oso zaila da.

Gainera, zerbitzu hau ez da inoiz planteatu horrelako lorpen edo emaitzak lortzeko.

Zein da Heldurekiko etorkinen iritzia?

Oso pozik zeuden. Espediente asko gizarte-errotze egoerarekin lotuta zeuden. Hau da, lan kontratua lortzen duen etorkin batek, hemen hiru urte darabatzala frogatu badezake, nahiz egoera irregularrean izan, paperak lortu ditzake. Espedientea martxan jartzen zen eta aholkularitza zerbitzua martxan jartzen genuen.

Espediente asko geratu dira tramitatze egoeran. Zaila da konkretuki zifra zehatz bat ematea, baina Gipuzkoan gutxi gora behera 1.600 izan direla kalkulatu dugu. Zerbitzua itxiz, espediente horiek ere itxi dituzte.

Gema Zabaleta, Enplegu eta Gizarte zerbitzuko sailburuak adierazi du zerbitzu hau ez dela desagertuko, izaera aldatuta emango zaiola baizik...

Azalpenak aldatzen joan da. Hasieran, Heldu zerbitzua bertan behera gelditzen zela adierazi zuen; ondoren, ezetz, beste eredu bat jarri behar zutela aipatu zuen. Eta honi jarraiki, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa aur-

keztu dute aholkularitza-lanak egiteko.

Telefono bidez ezin da benetako aholkularitza zerbitzua eskaini. Etorkinek jarraitu behar dituzten tramiteak oso konplexuak dira. Euren jatorrizko herrialdeetatik ekarri behar dituzten paperak begiratu behar dira, beharrezkoak dituzten ziguilu guztiak dituzten edo ez konprobatu. Eta hori guztia, telefonoz egitea ezinezkoa da. Eta horrela mila gauzekin.

Beraz, ez daukate orain arte emandako zerbitzuaren eredu jarraitzeko asmorik?

Orain arte eman den zerbitzuaren maila jarraitzeko ez behintzat. Zerbitzu hau martxan jarri zeneko planteamendua, eta orain Eusko Jaurlaritzak duena oso ezberdina dira.

Zabaletaren arabera, zerbitzu publiko batek ezin dio zuzenean etorkinei aholkularitza zerbitzua eskaini. Egundagoen Eusko Jaurlaritzak ez du hori ikusten. Euren ustez, zerbitzu hori emateko gobernu kanpoko erakundeak daude.

Lanean egon garen zortzi urte hauetan ikusi dugu, aholkularitza zerbitzu hori Helduk ematen zuela. Oso harreman ona eduki dugu GKE-ekin, eta bakoitzak eskaintzen zuen zerbitzua bestearen osagarri gisa jokatzen zuen.

Gure ustez, Helduk zeuzkan helburuak ez dira beteko ezarri nahi den eredu berri horren bitartez. Orain Biltzen zerbitzuan, hau da, Integrazio-arte eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuan, arlo juridikoa bat jarri nahi dute martxan aholku-lan horiek egiteko.

Atzera bueltarik ez dago?

Erabaki aldetik ez, argi eta garbi utzi dute itxiko dela.

Eta langileek, zein pausu emateko asmoa duzue?

Momentuz idatzi bat atera dugu eta arlo guztietako jendeak sinatu du; abokatuak, sindikatuak, alderdi politikok, unibertsitateko langileak...

Babes handia lortu duzue...

Alde horretatik oso kontent gaude.

Beste idatzi bat ateratzeko asmoa ere badugu, udaletxeetan aurkezteko, eta eurek orain arte egon den zerbitzu honen funtzionamendua defenda dezaten eskatzeko.

Langileok salaketa bat jarzteza ere pentsatu dugu.

Haserre?

Gehienbat formalitateen aldetik. Gauzak ez dira ondo egin. 23 langile gara, eta egunkarrien bitartez jakin dugu Heldu ixten zela. Ez dira moduak honelako zerbitzu bat itxeko. Itxiera pentsatua bazeukaten, denbora tarte bat ematerik zeukaten, gauzak behar bezala amaitu eta lotzeko.

Langileen irtenbide profesionalen ere ez dute pentsatu. Konturatu gabe lana edukizetik, langabezia egotera pasa gara.

Krisiak eragindako erabakia?

Arrazoiatariko bat hori dela diote. Baina ez dut uste nagusia izango denik.

Etorkizunean lan esparru honetan jarraitu nahi duzue?

7 urte izan dira lan honetan, eta azkenean honetan aditu bihurtzen zara.

Arazoarekin bat egiten dugu. Ia ez dakizu beste gauzarik egiten.

Dena den, ni SOS arrazakeriako kidea naiz eta mundu honetan jarraituko dut. •



Gaiari buruzko informazio eguneratua, helduezitxi.net eta helduezitxi.com-en

SALA GALA

ZATOZ ZURE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERA!

Larunbatetan
 17:30ean areto dantzak eta musika zuzenean
 23:30ean diskoteka

GIRORIK HOBERENA LAGUNARTE PAREGABEAN!

Galarreta Jai-Alai Frontoia
 Hernani 20120
 Tel.: 943 333 116
www.sala-gala.com

Ostegunetan pop-rock kontzertuak
Ostiraletan salsa

Igandetan
 17:30ean dantza eskolak eta animazioa Fermin eta Nataliaren eskutik (salsa, merengua, cha cha cha...)
 Areto dantzak 21:30ak arte.

Kiroletako agenda

TXIRRINDULARITZA

Igandea 25

8:00etan, Ostadarreko zikloturista taldea Mandubiako gainera egingo dute irteera.

PALA

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

Ostirala 23

19:00etan, Begiristain anaiak-Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziaga

Astelehena 26

18:15ean, 3. postua eskuratzeko lehia

19:00etan, Txapelketako final handia

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 25

95. Zaldi lasterketa denboraldia Donostiako Hipodromoan

3. jardunaldia, Coca-Cola Saria

17:30ean, Igo lasterketa, DONOSTIA KIROL SARIA, 1.400 m.

Dunnboinee (IRE)	Usaquen (FR)
Feitizo	Jongal (FR)
Ultime Bere (FR)	Nova Wango (FR)

18:05ean, 2. lasterketa, FRENCH RACING & BREEDING COMMITTEE SARIA, 2.000 m.

Rivallero (GER)	Lac Farow (FR)
Gadir (FR)	Lance Rocket (FR)
Maspalomas (USA)	Anglesola Mix (FR)
Mendavia	Stent (FR)
Ice Shelf (FR)	

18:40ean, 3. lasterketa, ENDANEA GARDEN CENTER SARIA, 1.400 m.

Amadeo Rey (IRE)	Lince (GB)
Bombadil (IRE)	Turn Around (FR)
Fauchizo (IRE)	

19:15ean, 4. lasterketa, AYERDI ERLOJU-DENDA, 2.200 m.

Al Precedent (GB)	Ballingloria (FR)
Blue Julia (IRE)	Sea Silence (FR)
Eco Jar	Pipire des Galas (FR)
Potior lure (GB)	Batuka
Riviera De Sou (FR)	

19:50ean, 5. lasterketa, COCA-COLA SARI NAGUSIA, 1.400 m.

Mariscal (IRE)	Sirenita (IRE)
Salpado (FR)	Doende
Pelotazo (IRE)	Hulrick
Rock of Asia (USA)	Sideside

20:25ean, 6. lasterketa, TELEDONOSTI SARIA, 1.500 m.

Gayarre (IRE)	John Fitzgerald (IRE)
Duncan de Ran	Confia
Fairly Dancer (FR)	Friedland
Modino (FR)	Fussy

Kiroletako oharrak

Udal Kirol Gunea itxita

Uztailaren 31, larunbata Udal Kirol Gunea, Mitxelingo gunea, publikoari itxita egongo da.

Egun honetan abonatuak beste udal kirol instalakuntzak edo Buruntzaldekoak erabiltze-

ko aukera izango dute nahi izanez gero.

Erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalararen Kiroldegia 31ean, goizez, zabalik egongo dela, 9:00etatik 13:00etara.



Arg.: Maialen Chourraute

Maialen Chourrautek berriro ere Espainiako txapelketa eskuratu du banakako lehian eta zilarrezkoa taldekakoan.

Maialen Chourrautek Espainiako txapelketa

Taldekako lehiaketan zilarrezko domina eskuratu zuen

Frantziako Orthez herriko kanalean lehiatu zen lehengo asteburuan, uztailak 17 eta 18an, Espainiako Slalom txapelketa.

Maialen Chourrautek lasarteoriatarrek K1 mailan parte hartu zuen eta estatuko onena dela berretsi zuen.

Gauza berriak

Orthez-eko kanalak ezusteko bat zekarren, Maialenek inoiz egin ez zuen erremonte bat.

Bere blogean azaltzen duen bezala, "slalomaren onena da, maniobra guztiak egin dituzula usten baduzu ere, beti dagoela zerbait inoiz ez duzuna egin."

Espainiako txapeldun

Larunbateko sailkapenetan ongi ibili zen palista lasarteoriatarra eta 1:47-ko denbora egin zuen, lehenengo izanik. Final erdian, ordea, ez zen eroso ibili eta 1:55 egin zuen.

Finalean segundu bat azkarago izan zen, 1:54 eta marka horrekin Irati Goikoetxea eta Marta Martinez garaitu zituen.

Baina ez zen hau herrira ekarri duen domina bakarra izan. Taldekako proban ere parte hartu zuen Maialenek eta bigarren postua eskuratu zuen.

Maialenen hurrengo erronkak, mundiala eta europako txapelketa dira eta horregatik, La Seu d'Urgellen dago entrenatzen. •

Odrizola-Martin da Santa Anako finalerako sailkatu den lehenengo bikotea

Eguraldia dela eta, atzo Santa Ana pala txapelketako lehenengo final erdia bakarrik jokatu zen.

Bernaitz Odrizola eta Shanti Martin 35-29 irabazi zioten Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradi bikoteari.

Partida berdindua izan zen, nahiz eta emaitzak hori ez erakutsi. Gogorra izan zen atzelarientzat. Tanto polit eta luzeak ikusteko aukera egon zen.

Pilota azkarra atera zuen bikote garaileak eta Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradien akatsek Odrizola eta Martinek finerako lehenengo txartela eskuratzeari ekarri zuten.

Gaur bigarren bikotea

Gaur arratsaldeko 19:00etara, atzeratu da bigarren final



Partida gogorra jokatu zuten atzo, finalerako lehenengo txartela eskuratzeko.

erdia. Honetan, Begiristain anaiak iazko txapelkunak, Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziaga izango dituzte aurrean.

Antolatzaileek azaldu dutenez, gaur euria eginez gero, Oriako pilotalekuan jokatuko litzateke partida.

Finala

Honela, bikoteak erabakiak daudela, astelehen arratsaldean, Santa Ana egunean, lehenik 3. postua eskuratzeko lehia ikusi ahalko da Michelin fabrika ondoko pilotalekuan, 19:00ak aldera, final handia. •

Egunero

Erakusketa

PAISAIA AMETSETAN margo era-kusketa ikusgai Jalgin hilaren bukaera arte.

RUDY MARGOLARIAREN lanak dira. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Astelehena, 26

Antzerkia

SANTA ANA egunean hainbat ospakizun izango dira.

Goizean MEZA Brigitarren kapera, **11:00etan**, eta iluntzean, **22:30etan**, SANTA ANAKO PARODIA Isla plazan.

Liburutegiko udako ordutegia



Manuel Lekuona kulturtxea

Manuel Lekuona kulturtxea
Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

UZTAILAN

Goizez: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara

Arratsaldez: astelehenetan 16:00etatik 20:00etara

Larunbatetan, itxita

ABUZTUAN itxita egongo da

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, hurrengo asteleheneroan uztaileak 26an, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan ekainaren 21ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Buruntz Azpiko galeper tiraketa

Uztailaren 31n, Buruntz Azpi elkarteak Galeper Tiraketa (kaiolan) ospatuko du.

Aurreko urteetan bezala izen-emeata Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin behar da eguna baino lehen.

Tiraketaren ostean, hamaitakoa egongo da.

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpaina berri jarri du martxan.

Honetan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrak, %2ko beherapena izango dute haien ordainketan.

Stock eta Saldoen III. Azoka martxan

Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea merkatariei-elkarrekin herriko komertzioei.

Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egingo da, Michelin Kirol gune pilotalekuan.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearen jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono-zenbakien bitartez, edo itziariruzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bat bidalitz.

Abuztuko udako txokotan plazak

Abuztuko udako txokotan taldeak osatzeko plazak badaudela jakin arazi nahi du Ttakun Kultur Elkarteak. Interesatuak deitu dezatela 943 371448 telefonora.

Taldeak osatzeko plazak soilik direnez, ez dira asko, beraz lehen bailehen deitzea komeni da.

Buruntzaldeako Kirol Instalazioak

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: abonua Buruntzaldeako edozein Udalaren Kirol Instalazio erabiltzeko bidea ematen duela, gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz.

Era berean, jakin arazten da, Urnietako kirol instalazioak erabiltzeko derrigorrezkoa izango dela, bazkide txartelaz gain, takiletarako kandadua eramatea.

Ola kalea itxita kale Nagusitik

Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko interzeptore orokorreko lanak direla eta, Kale Nagusitik Ola kaleko sarrera itxita egongo da.

Era honetara, Ola kaleko mozketak dela eta, zirkulazio aldaketak egongo dira: Zumaburu auzorako sarrera elizaren ondok izango da eta auzoaren irteera Erribera kale-tik. Zumaburu kalean kotxeen zentzua aldatu egingo da, beraz.

Kalean zentzuarekin gertatzen den bezala, garajeen sarrerak eta irteerak ere zentzuz aldatzen dira.

Orain arte sarrera zena irteera izango da eta irteera zena, sarrera.

Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izango duelakoan dago.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Zubietako Santio Jaiak

Ostirala, 23

19:00etan, Jaien hasiera (buruhandi, txalaparta, e.a...)
21:00etan, Herri afaria.

Ondoren, EGAN taldearekin dantzaldia.

Larunbata, 24

10:30etan, Meza.
11:30etan, Zubietako III. SAGARDO eguna. (Iruin, Araeta, Aialde-Berri...)



14:00etan, Jubilatuen bazkaria.

16:00etan, Mus txapelketa.

17:00etan, Zubietako bikotekako II. Bizikleta lasterketa.
18:30etan, Patata tortila lehiaketa. Bakoitzak bere tresnak eta nahi dituen osagaiak ekarri ditzala.

Ondoren, ITZARTU trikiritia taldearekin dantzaldia.

23:00etan, Kontzertua: Neber Surrender, Ze Esatek!

Ondoren, LAIOTZ.



Igandea, 25

09:00etan, Esnadeia (Donostiako txistulari bandaren eskutik).

10:30etan, Meza nagusia.

11:30etan, Hamaiketakoa.

Ondoren, soka-dantza.

18:00etan, XIII. Trikiritia txapelketa.

Ondoren, LEIRE LASA eta IRATI IRURZUN trikiritariak afal orduarte.

Ondoren, buruhandiak.

22:30etan, Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Ibai Esoain, Andoni

Egaña. Gai-jartzaila: Egoitz Aizpuru.

Ondoren, LEIRE LASA eta IRATI IRURZUN trikiritarien jarraipena nazkatu arte.

Astelehena, 26

06:00etan, Oilasko biltzaileen irteera.

14:00etan, Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

Asteartea, 27

10:00etan, Jolasen hasiera.

14:00etan, Bazkaria.

16:00etan, Jolasen jarraipena.

18:00etan, Gorritiren showa.

19:30etan, Txokolatada.

Ondoren, buruhandiak.

Ostirala, 30

16:00etan, Esku-lanak egiteko tailerra umeentzako.

17:30etan, Futbito partidua.

00:00etan, Kontzertua: Gaueko Itzalak, Esne Beltza.

Ondoren, LAKETZ taldearekin goizalderarte gozatzeko aukera.

Larunbata, 31

06:00etan, Txokolatada.

07:00etan, Sokamuturra.

09:00etan, Zikiro prestaketaren hasiera.

09:30etan, Meza.

11:00etan, Errebote partidua. (Lokaleko finala).

14:00etan, Zikiro jana.

19:00etan, Dema. ETXETXO (Zubietako) eta AZKONOBIE-TA (Urnietako).

Ondoren, ANSORREGI eta LARRAÑAGA trikiritariak afal orduarte erromeria.

22:30etan, ANSORREGI eta LARRAÑAGA trikiritarien jarraipena gauerdirate.

00:00etan, Jaien amaiera (Suziri, suzko-zezen, e.a...).

00:30etan, Kontzertua: Hesian taldearekin.

Ondoren, TRIKIHOTS trikiritariak erromerian jarraitzeko aukera.



Lasarte-Oria Bizirik taldeak gogor heldu dio zabor gutxiago sortu, hau gaika bereizi eta materia organikoa konpostatzearen aldeko helburuari. Eta xede horrekin plangintza bat hasi zuen ekainaren amaieran Udalak ere bide

hori hartu dezan saiatzeko. Batetik, liburuxka bat argitaratu du, taldearen historia jasotzeko batera, atez ateko bilketa zaborra jasotzeko sistemarik egokiena zergatik den azalduz. Bestetik, ahaliak eta zabor gutxien

sortzearen, erraustegiaren eraikuntza sei urtez gelditzearen, zaborra tratatzeko beste bideen eta atez ateko sistema jartzearen alde dauden elkarten atxikimendua jasotzen ari da, gero eskaera horiek Udalari egiteko.

Herrian "Zero Zabor" sortzea da Lasarte-Oria Bizirik-en helburua

■ Herriko elkarten atxikimendua jasotzen ari da ■ Zaborraren gaikako bilketa, errauste plantaren sei urtetako atzerapena eta materia organikoaren konpostajea bultzatzen ditu

JON ALTUNA

Lasarte-Oria Bizirik plataformak beste proposamen batzuekin batera, "ahaliak eta epe laburrean atez ateko bilketa sistema" jartzeko eskatu nahi dio Udalari eta eskaerak indar handiago izan dezan horrekin bat egiten duten elkarten atxikimendua jasotzen ari da. Herrian atez ateko sistema jartzeko eskatuko diote Lasarte-Oriako Udalari, birziklatu daitezkeen materialen tasak igotzeko eta hondar-errefusa minimizatzen.

Plataformak kontutan dauka oraindik ere Udalak aho batez onartu zuela 2008an, PPko zinegotzia falta zen Udal Batzar batean, atez ateko sistema probatzeko erabakia.

Gainera, beste eskaera batzuk ere egiten ditu Lasarte-Oria Bizirik-ek atxikimendua biltzeko orrian. Alde batetik, Zubietan eraiki nahi duen errauste plantaren sei urteko luzapena, hau da, egitasmoa sei urtez gelditzeko proposamena. Eta bestalde, "Zero Zabor" edo "Zero Waste" helburua duten programak (ekoizpen garbia, fabrikatzaileen erantzukizuna, erosketa berdea, kontsumo arduratsua...) martxan jartzea, herri bakoitzari egokitutako gaikako bilketa sistematik onena martxan jartzeko eta materia organikoaren konpostajea bultzatzeko.

Auzo eta guraso elkarteak, merkatariek, ekologiek, sindikatuek, alderdi politikoei eta herriko beste kolektiboek deia luzatu die plataformak "erraustegia saihesteko eta gure hondakinak osasuntsu kudeatzeko" aldarrikapenekin bat egin dezaten. Lasarteoria-bizirik@yahoo.es helbide elektronikoen bidez egin dezakete.

Bestalde, liburuxka bat argitaratu du taldeak interesgarria den informazioarekin. Batetik, duela sei urte Lasarte-Oria Bizirik sortu zenetik, taldeak izan duen bilakaera azaltzen da, hasieratik defen-



Sei urte dira Lasarte-Oria Bizirik plataforma sortu zena, urte hauetako bilakaera jakitera emateko liburuxka argitaratu dute.

datu dituen iritzi eta egitasmoak laburbiltzen dira eta Udalak herritarren jarrera ezagutzeko egindako azterketaren ondorio gusiak azpimarratzen dira. Horrela, gai interesgarri ugari jorratu dituzte, erraustegia, herritarren parte hartzea, zaborraren tratamendu ezberdinak, materia organikoaren konpostea, gaikako bilketa, 5. edukiontzia, atez ateko bilketa,...

Eraginkorra

Plataformaren ustez, atez ateko sistema da eraginkorra eta oso argi dauka: "ohiturak aldatzeko prest dauden herritarren parte hartze arduratsuen alde" daude eta horrela "zentzugabekeria" iruditzen zaie erraustegia eraikitzea.

Beraz, udalbatzarrak duela bi urte Lasarte-Orian atez ateko sistema abian jartzea erabaki ondoren, eta egindako inkestan herritarrek oro har atez ateko sistemaren aldeko eta errausketaren aurkako iritzia eman ondoren, plataformak ez du ulertzen Jesus

Maria Zaballos alkateak eta PSOE alderdiak zergatik aldatu duten iritzi.

Liburuan hau ziurtatzeko azterketaren emaitzak ematen dituzte: Lasarte-Orian ehuneko 51 atez ateko bilketaren alde da, ehuneko 24 aurka, ehuneko 60k bultzatuko luke eta ehuneko ia 90 egokituko lirarteke. Aldiz ehuneko 80 erraustegiaren aurka, ehuneko 48 sistema bezala errausketa erabiltzearen aurka, eta soilik ehunetik 5 erraustegia Zubietan kokatzearen alde.

Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak apirilaren 27an bildu ziren Zaballos alkatearekin zaborren kudeaketari buruz hitz egiteko eta bertan atez ateko bilketaren eta 5. edukiontzia sistemekin lortutako emaitzen berri eman zioten alkateari.

Berriro bilduko zirela adostu bazuten ere, plataformak ez dio alkateari interesik ikusten. TXINTXARRIN karta bat ere idatzi zuten baina alkateak ez dio ez plataformari ez

iritzi publikoari bere jarrera aldatetaren arazoirik eman. Bitartean, PSOE eta EBk Udalean zuten akordio hautsi egin da eta Gobernu taldeak, Ricardo Ortega EBko zinegotziak zituen kargu eta ardura guztietatik kendu dute. Martin Moreno izango da Ricardo Ortegaren ordez San Markos mankomunitatean. Hain juxtu Ricardo Ortega zen atez ateko bilketa sistema bultzatzen ari den mankomunitateko lehendakaria.

Aldaketak San Markosen

Aurreko astean argitaratu zenez azken finean Ricardo Ortega Mankomunitateko ordezkaritzatik kentzearen helburua, PSOE, EAJ eta H1ek elkarrekin, berriro Mankomunitatearen gehiengo berreskuratzea izan da.

Urnietan ere EAJ eta PSOE bat egin dute, ANVko Iñaki Mendizabal Mankomunitateko kideak. Ortega eta Mendizabal-en ordez, PSOE eta EAJko bi ordezkarri jarrita, Mankomu-

nitarearen kontrola berreskuratuko dute hondakin atez ateko bilketa moteldu eta erraustegiaren proiektua bultzatuz. Dena den, bilketaren eskumena udalena da.

Atzeraka

Lasarte-Oria Bizirik taldekoen iritzi, "atzeraka goaz. San Markos Mankomunitatean hondakin inguruan lortu den guztia, eta asko izan da, desegin nahi dute. Hartu duten bidearekin, uste dugu erraustegia bultzatu nahi dutela. Ana Urchueguiak Zubietan erraustegirik egin ez dadin ahal zuen guztia egingo zuela esaten zuen. Gezurra zen. Zer egiten du oraingo alkateak erraustegiaren aurka? Bere bere helburua hori da, herri ondoan erraustegirik ez jartzea. Euren egoitzan pankarta jarrita dute, "No a la incineradora en Zubietan".

Lasarte Oria Bizirik-ek emandako informazioaren arabera, 1998tik bada estatuko lege bat 5.000 biztanleko gorako herrietan hondakin organikoak berezita jasotzera derrigortzen duena. "Gero, bilketa sistema bat edo bestea izan daiteke, gure ustez eta datuek hori frogatzen dute atez ateko hobe da, baina 5. edukiontzia ere erabili daiteke. Beraz, hiri gehienak bezala Lasarte-Oriak ere ez du legea betetzen. Eta azken plenoan alkateak esan omen zuen ez duela horretan pentsatu". Horregatik galdetzen dute plataformakoekin zein asmo daukaten eta erabakia hartzeko arazoak zeintzuk diren.

Dena den, plataformak uste duenez, alkateak eta bere taldeak gai honi buruzko iritzirik ez dute ematen, bataz edo besteak herritarrengan, hautesleengan alegia, izango duen iritzi, eragin eta erantzuna aztertzen ari direlako.

Hau da, "ez dute sistema baten edo besteren eraginkortasuna neurtzen, pausu bat edo bestea emanda boto gehiago lortuko dituzten ala ez, baizik. Honek erakusten du zer sentsibilitate daukaten". •

“ Erraustegiaren luzapena, zero zabor programak eta organikoaren konpostajea bultzatzeko eta Udalak atez ateko bilketa martxan jartzeko eskatzen du plataformak